

Balio Proposamena

Lo egiteko toki bat behar duten baina diru gehiegi gastatu nahi ez duten pertsona edo turistentzat gidatua egongo da gure balio proposamena. Gure lokala ostatu ekonomiko gisa diseinatu ditugu. Gure ideia berritzaile hau, Donostian, konkretuki Egia auzoan kokatuta egongo da. Lokala, kapsula merke osatutako lo egiteko tokia izango da. Ideia hau berritzailea da eta hosteletatik desberdintzen gaitu; izan ere, gure kapsulak banakakoak dira, pribatutasuna bermatuz.



Gainera, prezio konpetitiboak eskaintzen ditugu zerbitzu estandarrarentzat. Prezio hauek, hotel batenak baina merkeagoak izango dira eta ostal baten antzeko prezioak izango ditugu. Eta premium zerbitzuak ere baditugu erosotasun handiagoa nahi dutenentzat. Bezeroak dutxatzeko aukera izango du



prezio gehigarri baten truke, eta vending makinetan janaria eskuratzeko aukera ere izango du. Balio proposamen hau merkatu segmentuarentzat zentzuzkoa da, bezero hauek diru-iturri baxuak dituztela eta Donostian hotelen prezioak altuak direla kontuan hartuta. Bezeroak prezio baxuko eskaintzagarik ordaintzeko prest egongo dira, gure eskaintza beren beharretara egokitutako aukera merke eta eskuragarria delako.